


B

BARREN

TOKIKOM



Mamo Wolde gogoan

Mugertza Krosa domekan



**elgoibar
ikastola**

Konfiantzan IKASTOLA
 HH 0 (2012an eta 2013an jaiotakoak)
 martxotik ekainera hasteko
 matrikula zabalik
 urtarrilaren
 14tik 25era







Pintxo Pote Deluxe

3 pintxo eta 3 ardo aukeran

Ostegunero, San Anton egunetik aurrera
 (urtarrilak 17).

Pintxo poteko ibilbidea betetzen baduzu,
 ardo botila bat doan, zozketarik gabe.

Ilunpe, Viento Sur, Marem, Txarriiduna Paulaner,
 Chino Gran Siglo, Maala.





Haurreskolak

www.haurreskola.net

Matrikulazio epea zabalik
Urtarrilaren 14tik 18ra

Elgoibarko Haurreskola
943 742 141



Jose Luis
Azpillaga

Urte berria hasi da, estreinatu ditugu egutegia eta agenda berria, eta dagoeneko markatu ere bai hainbat hitzordu garrantzitsu. Lehenengo, urtarrilaren 12an bertan, Bilbon, presoen eskubideen aldeko manifestazioa. Laster etorriko dira beste hainbat: Elgoibarko Izarraren 50. urteurrena, 18. Korrika...

Euskaltegian ere laster hasiko gara EGA eta egiaztatze-proben datei begira.

Maila pertsonalean ere markatuta ditut apirila, alaba atzerira joango baitzaigu lanera, eta uztail erdi aldea, kanpoko lagun batzuk bisitan datozkigu eta. Eta gero, gainera, uanean-uean sortuko diren mila gorabehera izango ditugu, dudarik gabe. Aurki gure agendak apuntez betetzen hasiak egongo dira, ezta?

“Estreinatu dugu agenda berria, eta dagoeneko markatu ere bai hainbat hitzordu”

Krisi- eta aldaketa- garaian bizi gara. Urte berria gogorra izango omen da, gero eta familia gehiagok jasango omen dituzte ekonomia-krisiaren ondorio latzak. Arlo askotan gero eta murrizketa handiagoak izango omen dira, baita kultura arloan ere. Horrek guztiak hainbat erabaki hartzera behar-tuko gaitu. BARRENEN jarraipenari buruzko erabakia ere aurten hartuko da, ziur aski. Eusko Jaurlaritza eta Legebiltzar berria ditugu. Hortik ere etorriko dira zenbait aldaketa, denoi eragingo digutenak. Uste izatekoa da hizkuntza-politikan ere aurreko legegaldian bazterrean utzitako zenbait egitasmo berriz hartuko direla. Ez du ematen, ez, aspertzeko betarik izango dugunik 2013. urtean. Horregatik guztiagatik, urtea hasi dugun honetan, honakoa opa nahi diet hainbat erabaki garrantzitsu hartu behar dituztenei: buruargitasuna eta kemena, egitasmoak erabakitzeko eta horiek aurrera emateko, eta apaltasuna, norberaren mugak onartzeko, zenbait asmo bete ezinik geratuz gero. Eta gauza bera opa diot neure buruari eta baita zuri ere. Urte berri on, Amaia!



Amaia
Larrañaga

Urte berri on, zeuri ere J. Luis, eta BARREN irakurtzen duzuenoi ere bai. Urtea hasi besterik egin ez dugun honetan, estu samar sumatzen zaitut, J. Luis, agendan egun asko markatuta klase guztietako ekitaldiekin; batzuk, urteak joan urteak etorri, erreibindikatzen jarraitu beharrekoak, zoritxarrez: biharko Bilbokoa, euskararen aldeko kontzientziarioa eta Euskal Herri osoan euskalduntze alfabetatzen diharduen AEKren alde dirua biltzeko den KORRIKA...; beste batzuk, ostera, uanean-uneoak: maila pertsonalari dagozkiolak, lanarekin eta krisiarekin lotutakoak, besteak beste BARRENEN jarraipena.

Baina, nik gozamenari ere leku egin nahi diot nire agendan, eta zer hobe 2013an izango dugun E.H. Bertsolari Txapelketa baino? Euskal kulturaren barruan gehien gozarazten didan eta gehien mires-ten dudan arloa da bertsolaritza, ez daukat hitzik bertsolarien jarduna azaltzeko, benetan magikoa deritzot. Kapaz naiz orduak eta orduak bertsoak entzuten emateko, eta zer esanik ez zuzenean baldin badi-rra. Horregatik markatuko ditut agendan aurtengo kanporaketa saio-ak, ahalik eta ordu magiko gehien pasa ditzagun. Sarritan saiatzen naiz euskaltegian bertsolaritza ezagutu dezaten, gozatzeko (eta ikas-teko) tresna dela adierazten, eta batek baino gehiagok estimatu ere egin izan dit, baina, tamalez, gutxi.

“Nik gozamenari ere leku egin nahi diot agendan”

Honen harira, pasa den abenduan, euskararen eguna zela-eta, Udal Euskara Batzordearen ekimenez izan genuen ekitaldixoa aipatu nahi dut, izan ere, parte hartu zuen ikasle batek esan zidan Olen-zerro-oparia bertso idatziak izango zirela, berak egindakoak, jakina, beraz, hau behintzat harrapatu zuen bertsoen magiak (eskerrak gida-ri izan genuen Nereari), eta, bide batez, Gabonetako saioan “bertso-lari handiek” besteko ahalegina egin zuten BEINKE eskolako gazte-txoei ere zorionak.

ESKERTZA

**MODESTA FERNANDEZ DE JAUREGUI
SAENZ DE UGARTE**



2012ko abenduaren 25ean hil zen, 102 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.

Beti alai, oso irribarretsu, gure bihotzetan izanen zara zu.

Zure familia



Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



■ GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Elgoibar solidario

Thiare familiaren ezbeharra dela eta, Kalamua Guraso Elkarteak, halanola familiak berak, eskerrak eman nahi dizkizue diru bilketan lagundu duzuen guztioi, bereziki Doña Mercedes, Pitxintxu, Astigarraga, eta Gloria dendei, Genma eta Jairori, eta laguntzen jardun duzuen guztioi.

Guztioi esker, lortu dugu familia horri laguntzea eta umea sorterrira eramatea. Oraingo honetan ere, Elgoibarko herriak elkartasun sentimentu sakona duela erakutsi du.

Bihotzez, mila esker.

Kalamua Guraso Elkarte

■ EDITORIALA

BARRENek ere hasi du urte berria, baina ez nahiko lukeen moduan. Abenduan, hogeigarren urtemugari eskainitako alean esan genizuen bezala, bere emana handitu eta hobetzea izan da beti BARREN egiten dugun guztion helburua, baina diruak ez du ematen, eta, aurretik hartutako neurriak nahikoak izan ez direnez, aurten ere hainbat neurri hartu behar izan ditugu ezinbestean. Batetik, BARREN eko langileen soldatak beste %5ean gutxitu ditugu 2013rako (Elgoibarko Izarra kultur elkarteko gainontzeko langileen soldatak bezala). Bestetik, eta soldatak jaitsita nahiko ez denez, koloreko orrialdeak eta azaleko orriaren gramajea gutxitu behar izan ditugu.

Ez dira gure gustuko neurriak izan, baina derrigorrean hartutako erabakiak dira; aurrera egiten jarraitzeko hartutako neurriak.

Kolore eta sendotasun apur bat galdu du BARREN ek, bai, baina, hala ere, aldizkaria jaio zeneko ilusioari eusten diogu, eta 2013an ere, egunero-egunero izango gara zuekin elgoiBARREN.net atarian. BARRENek, berriz, aurreko 20 urteetan moduan, ostiralero joko du zuen etxeko aldaba. Apal-apal, baina duen onena emateko prest.

Beste askok moduan, gure ere une zailak bizi ditugu, oso zailak, baina ez dugu etsi nahi. Zuekin batera egin dugu BARREN hogei urtean, eta proiektu honetan sinesten dugun guztiokin batera eutsiko diogu, gaur ilun dagoen tokian bihar eguzkia irten dadin.

BARREN



ESKERTZA

EUGENIO ALBERDI ARRIOLA

2012ko abenduaren 28an hil zen, 89 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



KERMAN MORENO IRIONDO

*Beti gurekin
OSS!*

Karateko lagunak



ESKERTZA

KERMAN MORENO IRIONDO

*Gaitz madarikatu batek eruan zaittu gure ondotik
eta gelditu gera ezin asmatu berba egokirik
Ba al dago inguruan zuk zapaldu ez dozun mendirik
edo ostiraletan kale egindako afaririk?
Zuk gugan lagatako hutsunia ez dago betetzerik.
Bueno, Txorto, agur esateko ordua heldu dala jakiñik,
Mariaje eta etxequenzat besarkada bat gure partetik.*

Betirako, zure lagunak



ESKERTZA

KERMAN MORENO IRIONDO

*Mendietarantz pauso luzea
bizitzak krudel haizea
nola gainditu, nola arindu
zu hemen ez izatea
zure goxoa, zure barrea
gertu beti umorea
ez hiltzen zenbat saiatzen garen
bizitzen gutxi ordea
gugan landatu dituzunekin
segiko dugu bidea*

Etxekoak



2012ko abenduaren 20an hil zen, 43 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen
ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.

Herri Eskola handitzeko obrak hilabete amaieran hasiko dituzte

Zortzi ikasgela, gimnasioa eta psikomotrizitate gela berriak egingo dituzte, besteak beste

Urtarrilaren amaiera aldera hasiko dituzte Herri Eskola handitzeko lanak, eta ondo bidean, bederatzir hilabeteko epean amaituko dituzte. Herri Eskolak espazio falta arazoa zeukan azken urteetan, eta hiru ikasturte egin dituzte umeez patioan egokitutako ikasgela prefabrikatuetan. Obra honi esker, Herri Eskolaren espazio arazoa konponduko dute, eta zuzendaritzako zein Kalamua Guraso Elkartearen kideak pozik azaldu dira. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak finantzaturiko obrak, eta 1.535.936 euroko aurrekontua izango dute.

Espazio berriak

Eraikinaren azpiko patio estalian bi solairu egokituko dituzte, eta gune horretan Haur

Hezkuntzako ikasleentzako zortzi ikasgela, gimnasioa, psikomotrizitate gela, aldage-lak eta komunak egingo dituzte. Horrez gain, egungo eraikinean jangela handituko dute, bi gela egingo dituzte eta igogailua- ren erabilera gaurko beharretara egokituko dute.

Elkarlana

Udalarekin izandako elkarlana nabarmendu zuten prentsaurrekoan ikastetxeko ordezkariak eta Kalamua Guraso Elkartearen, eta horri esker, azken bi urteotan hobekuntza lan handiak egin dituztela esanda. 2009-10 ikasturtean patio estalia eraiki zuen Udalak, eta ia ikastetxea margotu zuten. Guraso eta irakasleek hasi zituzten margotze lanak, eta Udalak amaitu zituen.



Aurtengo Eguberrietan, berriz, haur eskolako eraikina margotu eta berritu dute. Herri Eskolak 500 ikasle inguru ditu aurren. Otsailaren 2an egingo dute ate irekien jardunaldia, eta herritar guztiek izango dute ikastetxea ezagutzeko aukera.

Domeka goizaldera izandako sexu erasoak salatzen elkarretaratzea



Dozenaka lagun batu ziren astelehenean, domeka goizaldean izandako sexu erasoak salatzen. Elgoibarko Emakumeen Asanbladak eta Haizea Emakume Taldeak antolatu zuten elkarretaratzea, eta deialdiarekin bat egin zuen Udalak. *Aski da! Emakumeen aurkako erasoak ez* eta *Emakumeenganako indarkeriarik ez* lelopean, emakumeek aske eta lasai bizitzeko eskubide osoa dutela nabarmendu zuten antolatzaileek eta erasoak behingoz amaitzeko exijitu zuten batutako guztiek. Elgoibarko Udaleko ordezkariak ere ahots batez salatu zituzten erasoak. Domekako erasoak “matxismo basatiaren” sinboloak direla adierazi zuten, eta parekidetasun politiken alde egiten jarraitzeko konpromisoa berretsi zuten.

Domeka goizaldera gertatu ziren erasoak, laurak aldera. Usteko erasotzaileak bi mutil gazte dira, 19 urtekoak. Domekan bertan atxilotu zituzten eta astelehenean pasatu ziren epailearen aurretik. Deklarazioa jaso ostean, epaileak behin-behinean libre laga zituen, epaiketa gertatu bitartean.

Pertsonaia **Arkaitz Egaña**

Arkaitz Egaña Espainiako Ehiza Xehe Txapelketa irabazi zuen abenduaren 9an, Sorian. La Union ehiza eta arrantzu elkarteak ordezkatzeko Egaña, eta Eguberrietan elkartean eta Elgoibarko Udalaren erreko- nozimendua jaso zituen ehizari elgoibartarrak. Espainiako Ehiza Xehe txapelketa irabazi duen bigarren euskalduna izan da Egaña. Bere aurretik, Julian Larreak lortu zuen garaipena 1968an, Espainiako txapelketa jokatu zen estreinako aldian.



Datua **2.000 euro**

Kalamua Guraso Elkarteak diru bilketa kanpaina hasi zuen Thiare familiaren alde. Egun gutxitako haurra hil zitzaion Thiaretarrei, eta haren gorpua euren jaioterria eraman ahal izateko dirua batzen hasi ziren Elgoibarren, Gabon aurretioan. Dendetan kutzak jarri zituzten Kalamua Guraso Elkarteak eta kontu korrante bat ere zabaldu zuten. Orain, jakinarazi dute 2.000 euro lortu zituztela guztira, eta eskerrak eman dizkiete herritarrei Thiare familiak bete ahal izan duelako bere nahia.

Irudia **Asiako liztorren habiak Elgoibarren**

Santa Klara auzotik pare bat kilometrora, Aiastiarako bide ertz batean dagoen zuhaitzean jarri dute habia Asiako liztor inbaditzaileek (*Vespa velutina*). Ez da Elgoibarren agertu den aurreneko habia, hala ere. Inork ez daki garbi nola, baina adituen ustez Txinatik etorritako merkantzia itsasontzietan iritsi ziren Europara Asiako liztorrak. Frantzia 2005ean detektatu zituzten aurrenekoz, eta Hego Euskal Herrira Bordeletik sartu ziren orain dela sei bat urte. Orditik, makina bat habia agertu dira gure inguruan. Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi duenez, maiatzetik hona 657 habi kendu dituzte Gipuzkoan.



EGUBERRIETAKO SARIAK

Eguberrietan egin diren zozkete- tako zenbaki sarituak dituzue ondo- rengoak:

• **C.D. ELGOIBAR:**

1. Saria: **12.369**
 2. Saria: **02.149**
- Agertu dira bi sarituak.

• **MISKIREN ZOZKETA:**

1. Eroskiko otarra: **3.576**
 2. Aisia Deba hotela: **3.019**
 3. Hotel Londres: **0.466**
- Agertu dira hiru sarituak

• **EZKER ABERTZALEAREN MARISKADA:**

Zenbaki saritua **9.284** izan zen, baina bi eguneko epean saritua agertu ezenez, ordeko zenbakia- ren jabeak (6.780) eraman zuen sa- ria.

• **SAHARAREN ALDEKO ERRIFAK:**

Zenbaki saritua: **758**. Zenbaki saritua jabeak hilabeteko epea du saria jasotzeko. Harremanetarako: 943 743 228 telefono zenbakira dei- tu behar da edota gaztelekua@elgoibar.org helbidera idatzi.

• **ATXUTXIAMAIAKAREN ERRIFAK:**

1. Saria: **1.440** (Ordezkoa: 1198)
 2. Saria: **0104** (ordezkoa: 2.663).
- Agertu dira zenbaki sarituen ja- beak.

• **TXANKAKUAKO ZENBAKI SARITUAK**

500 euroko bi bono eta ehun eu- roko zortzi zozketatu zituen Txanka- kuak. 500 euroko bonoaren zenbaki sarituak:

73.243. Ordezkoa: 05.194

57.990. Ordezkoa: 43.646

Ehun euroko bonoen zenbaki sarituak:

15.739. Ordezkoa: 97.683

55.334. Ordezkoa: 87.486

68.528. Ordezkoa: 64.315

02.785. Ordezkoa: 46.686

36.290. Ordezkoa: 98.778

17.516. Ordezkoa: 15.415

43.235. Ordezkoa: 37.434

64.984. Ordezkoa: 07.153

Otsailaren 8ra arteko epea dago.

MAMO WOLDE AKORDUAN

Mamo Wolde atleta etiopiarraren oroimenez jokatuko dute Mugertza Krosa domekan. 50 urte dira Mamo Wolde estreinakoz Elgoibarrera etorri eta Mugertza Krosa irabazi zuela, eta antolatzaileek berari eskainiko diote aurten-go edizioa. Urtero bezala, nazioarteko korrikalaririk onenatarikoak lehiatuko dira Mintxetan, atletismoaren jaietan. 10:00etan hasiko dira lasterketak.

Ainhoa Andonegi

Kasualitatez iritsi zen Mamo Wolde (Etiopia, 1932) Elgoibarrera, baina berehala egin zuen lekua elgoibartarren bihotzean. 1963. urtea zen. Lasarteko krosean parte hartu behar zuen Woldek urte hartan, eta korrikalari hori Elgoibarko kroserako ere egokia izan zitekeela esan zien kazetari batek Ego-Toki elkarteko arduradunei. Ondo gogoa dauka Fermin Arresek garai hura. Bi bilera egin zituzten Ego-Tokiko antolatzaileek Gipuzkoako Atletismo Federaziokoekin Donostian, eta negoziazioa ez zela erraza izan gogoratu du Arresek: "Bidaia eta egonaldiaz gain, eguneko bost dolar ordaintzen zitzaizkien garai hartan korrikalariei, baina haiek diru gehiago eskatzen zuten". Horrez gain, Elgoibarko zirkuitoa ez zen eroso, eta erantzuna eman aurretik krosaren ibilbidea ezagutu nahi zutela adierazi zuten. Garai hartan San Pedro fabrika barrutik pasatzen zen ibilbidea, eta Fermin Arrese eta Jose Gurrutxaga ibili ziren fabrika apur bat garbitzen, "itxura emateko". Negoziazio gogorren ostean, lortu zuten Mamo Wolde Mugertza krosera ekartzea. Hortaz, Elgoibarren jokatu zuen Woldek Europako lehenengo krosa. "Sekulako ikusmina sortu zuen atleta etiopiarrek, eta txiki geratu zen Lerun", adierazi du Arresek. Inguruko herrietatik ere jende pila bat etorri zen Afrikako korrikalariak ikusteko irrikaz, eta sarrera guztiak agortu zirela gogoratu du.

Lerungo futbol zelaia jendez gainezka zegoen, eta Woldek ez zuen hutsik egin. Berak irabazi zuen lasterketa urte hartan, eta ikus-



1963. Mamo Woldek irabazi zuen Mugertza Krosa. Lerungo futbol zelaia txiki geratu zen urte hartan. Fermin Arreserekin ageri da argazkian.

leek "gozatu" egin zuten. Hurrengo urtean ere bera izan zen azkarrena Lerungo zirkuitoan, eta baita 1967an eta 1968an ere. Aro berri bat hasi zuen Woldek Mugertza krosean, eta haren atzetik nazioarteko korrikalari onenatarikoak izan dira Mugertza krosean.

Mamo Woldek eta Mugertza krosak lotura estua izan zuten urteetan. Garai hartan munduko atleta onentsuena zen Wolde, eta El-

goibarko izena munduan zehar zabaldu zuen. Oso gustura etorzen zen Elgoibarrera, hemengo harrera “ezinhobea” zelako. Felix Berguak eta Fermin Arresek gogoan dute Donostiako krosa irabazi ostean Wolde Elgoibarrera etorri zela ospatzera. Mutil ona zela gogoratzen du Arresek, eta umeen oso laguna. Harreman ona izan zuten Wolderekin: “Municheko Olinpiar Jokoetan izan ginen 72an, eta lasterketa bat ikusten ari ginela, gu baino hiru ilara beherago ikusi genuen Wolde. Sekulako besarkada eman genion elkarri”.

Atletismoa utzi zuenean Etiopiako armadan sartu zen Wolde, eta bere bizitzako azken urteak kartzelan eman zituen. 2002an hil zen, kartzelatik irten eta urtebetera, 69 urterekin.

Atletismoak izan duen izar handienetarikoa bat izan da Wolde. 1968ko eta 1972ko Olinpiar Jokoetan dominak irabazi zituen, eta 1960an Erromako maratonia oinutsik korrika eginez irabazi zuelako egin zen ezagun. Mugertza Krosarekin izan duen harremana eskertu nahi izan dio Mintxeta atletismo taldeak aurtentzen, Elgoibarren irabazi zueneko estreinako aldiaren 50. urteurrenean.



1963. Mamo Wolde eta Tsegarle Marian, Estarta-Sigma Bisitatzen. Angel Ajubita, Jose Luis Ribate, Jose Gurrutxaga, Sr. Niskanen (etiopiarren entrenatzailea), Mamo Wolde, Ramon Arozena, Tsegarle Marian, Abril jauna.



Mamo Wolde, Fermin Arrese, Abebe Bikila eta Tsegale Marian.



1963. Jose Juaristi, Margarita Mugertza eta Jose Mari Gabilondo Lerungo futbol zelaian, Mamo Wolderi animoak ematen.

1963, DATA ESANGURATSUA

1943an sortu zuten Mugertza krosa, eta garai hartan CD Elgoibarrek antolatzen zuen. San Bartolome jaietan egiten zen hasierako urteetan, baina 1949an federazioko egutegian sartu zuten, eta urtarrian egiten hasi ziren. Mugertza krosaren 70. edizioa da aurtengoa, eta ibilbide luze horretan, 1963. urtea data esanguratsua izan da. Ordura arte, nazio mailan jokatzeko Mugertza Krosa, baina 63an estreinako korrikalari atzerritarak iritsi ziren. Mamo Wolde eta Tsegale Marian etiopiarrek eta Osvaldo Suarez argentinarra. 1960tik-2002ra arte Ego-Tokik antolatzen zuen krosa. Felix Bergua eta Fermin Arrese urte askoan ibili dira Mugertza Krosa antolatzen, eta epaile lanak ere sarri egin dituzte atletismoko probetan. Zainetan dute atletismoa, eta domekan ez dute hutsik egingo Mintxetan. Gaur egun Mintxeta atletismo taldeak dauka Mugertza Krosaren ardura, eta biek nabarmendu dute elkarrekin profesionaltasuna. Dударik gabe, antolakuntzatik kanpora lasterketaz gehiago gozatzen dela adierazi dute, antolatzaileek presio handia jasaten dutelako.



Felix Bergua eta Fermin Arrese urteetan aritu dira Mugertza Krosa antolatzen, Ego-Toki elkartearen barruan.

DOMEKAN KONTUAN HARTU BEHARREKO IZENAK

Gizonezkoak

LEONARD KOMON (Kenya, 88an jaioa)

- 2011, 2010 eta 2008ko Mugertza krosetako irabazlea.
- 2008ko munduko kros txapelketako txapeldunordea.
- 10 eta 15 kilometroko munduko errekorra egin du aurten.

VINCENT CHEPKOK (Kenya, 88an jaioa)

- Hirugarren egin zuen 2011ko munduko kros txapelketan.
- 10.000 metroko distantzian munduko bigarrena da.
- Zornotzan hirugarren egin du aurten.

EMMANUELE BETT (Kenya, 85ean jaioa)

- 10.000 metroko distantzian munduko lehena da.
- Soriako krosa irabazi du aurten, eta Atapuercan hirugarren egin du.



Leonard Komon,
udaletxeko aurkezpenear

Hiwot Ayalew eskuman,
iaz bigarren egin zuen
Mugertza krosetan.



Emakumezkoak

HIWOT AYALEW (Etiopia, 90ean jaioa)

- Bigarren egin zuen iaz, Mugertza Krosetan.
- Atapuercako krosa irabazi du denboraldi honetan.
- Londreseko Olinpiar Jokoetan bosgarren egin zuen 3.000 metroko oztopo lasterketan.

MERCY CHERONO (Kenya, 91n jaioa)

- 2010ean junior mailako munduko txapelketa irabazi zuen.
- Venta de Bañoseko krosa irabazi du aurten.
- 2011ko munduko txapelketan, bosgarren egin zuen.

IRINE CHEPET CHEPTAI
(Kenya, 92an jaioa)

- Munduko junior mailako kros txapelketan bigarren egin zuen 2008an.

Argazki gehiago eta bideoak: www.elgoiBARREN.net

Eguberriei errepasoa

Haurrak altzoan hartu eta haien gutunak irakurtzen eman zuten Olentzerok eta Mari Domingik abenduaren 24ko goiza.



*Ilusioa eta ezine-
gona nabari zite-
keen haurtxoen
aurpegietan.*

Eguberriei errepasoa

Gabon Zahar ferriako sariketan saritu zituzten guztiek taldeko argazkia atera zuten.



Gabon Zahar eguneko sari banaketa kantuz girotu zuten kale kantariek.



Gazta lehiaketako epaimahaikideak, gaztak dastatzen.



Zazpiki Kultur Elkartearen ekimenez, aurten Miskiren alde taloak egiten jardun zuten hainbat lagunek Gabon Zahar ferian.



Kantitatea eta kalitatea, Gabon Zahar ferian.

Gabon Zahar ferian batutako diruaren bi heren Caritasi eman dizkio EAJK: 1.000 euro guztira




Patinaje pistan gogotik gozatu zuen jendeak.



Elgoibar Ikastolakoen txosnan, jo eta su lanean.



Beinke bertso eskolako haurrek parte hartu zuten Elgoibarko Izarraren bertso jaialdian.



ARANBURU



BITXIDENDA

ARANBURU BITXIDENDAKO GABONETAKO ZOZKETAKO ZENBAKI SARITUAK:

1. SARIA

250 €-ko

balea bitxi dendan
gastatzeko

Zbkia.: 4.401

Ordezko zbkia.: 1.407



2. SARIA

250 €-ko

balea bitxi dendan
gastatzeko

Zbkia.: 1.367

Ordezko zbkia.: 3.929

San Frantzisko, 26 Tel./faxes: 943 742 535

Eguberriei errepassoa

Jesus haurrari eskaintza egin zioten erregeek.



Jende asko batu zen jaiotza biziduna ikustera.

Opariez gain, ilusioa ekarri zuten erregeek.



Errege magoak, San Lazaro egoitzan.



Baltasar erregea gozokiak banatzen, Mendaron.



Olentzero eta Mari Domingi Mendaron.



Txikienek ere ez zuten erregeekin argazkia egiteko aukera galdu nahi izan.

Erretratu zaharra



1960-1970

1960-70eko hamarkadan ateratako argazki hau Maria Uriartek ekarri du BARRENERA. Ego-Toki atletismo taldeko emakumezkoen taldea agertzen da erretratuan, Fernando Uriarte entrenatzailearekin. Txapelketaren bat jokatu ostean atera zuten argazkia, eta eskuan dituzten garaikurrak ikusita, badirudi irabazi zutela lasterketaren bat. Ikus ditzagun zeintzuk diren erretratuko protagonistak:

Goiko ilaran: Fernando Uriarte "Olimpic" (†), (entrenatzailea), Izaskun Aizpitarte, Isabel Etxaniz, Regina Lehr, Ana Zabaleta, Arrate Diego, Mari Karmen Etxeberria, Maite Unzueta eta Isabel Eguren. **Behean:** Kurutz Garzia, Mari Jose Arakistain, Maria Antonia Artetxe, Maria Isabel Aizpurua eta Maria Asun Otaegi.

ESKERTZA

SALBADOR IZAGIRRE BERNEDO



*Altzolan jaioa
zuhaitza eramaten sanjuanetan
udazkenean mendian perretxikotan
zenbat arrats Mintxetan
txantxa zalea, gustura lagun artean
zaren bezalakoa izateagatik
eskerrik asko benetan
beti eroango zaitugu
gure bihotzetan.*

2012ko abenduaren 31n hil zen, 61 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Zine-bonuari esker, bost film ikusi ahal izango dira Herriko Antzokian, lau filmerako sarrerak ordainduta

Urtean 40 film ikusten dituenak, hamabi gehiago ikusi ahal izango ditu, doan

Herriko Antzokira zinea ikustera joaten diren ikusle fidelenak saritu eta deskontuen bidez ikusle berriak erakarri nahi ditu Elgoibarko Udalak. Asmo horrekin sortu dute Zine-bonua, eta horri esker, bost pelikula ikusi ahal izango dira, lau sarreraren prezioan. "Esperientzia pilotu bat" izango dela azaldu dute Udaleko arduradunek eta, nola funtzionatzen duen ikusteko, bi urtean mantenduko dute. Herriko Antzokian 64 bat film ematen dituzte urtean. Erdiak Ongarri Zine Klubekoak dira, eta gainerakoak zine komertzialekoak. Zine-bonuen sistemari esker, zine zaleenak hamabi film doan ikusteko aukera izango dute, urtean berrogei emanaldi ikustera joaten badira.



Bonua eskuratzeko argibideak

Zine-bonua Kultur Etxean eskuratu daiteke. 13 urtetik gorako edonork eskatu dezake bonua, eta urtebeterako balioa izango du. Txartela transferiezina izango da, eta txartel-saltzaileak sarrera ematerako orduan nortasun agiria eska diezaioke erabiltzaileari, txartelaren jabea bera den jakiteko. Txartela agortu duen erabiltzaileari puntu bat emango dio Kultura Sailak, eta hamar puntu lortutakoan, bi zine emanalditarako sarrerak oparituko dizkio. Informa-

zio gehiago nahi izanez gero, 943 742 158 telefonora deitu daiteke.

Prezio berriak

Urtarrietik prezio berriak daude Herriko Antzokiko ekitaldietarako. Hala, zine emanaldietarako sarrerak sei euroko kostua izango du (4,5 euro Gazte txartelarekin) eta ikuskizun eszenikoetarako sarrerak hamar euro balioko ditu (7 euro Gazte Txartelarekin).

'Hil arte bizi' antzezlanaren taularatuko dute gaur, Elgoibarko Herriko Antzokian

Hil arte bizi antzezlanaren taularatuko du gaur iluntzean Txalo Produksioak taldeak, Herriko Antzokian. Adiskidetasunaren gainean egiten den hausnarke-ta izango da antzezlanaren oinarria. Natxo, Angel eta Maria hiru lagun dira, betiko hiru lagun, baina gertakari batek arriskuan jarriko du euren arteko adiskidetasuna. Adiskidetasuna eta maitasuna nahastuko dira, eta gertakari horiek gainditu beharko dituzte hiru protagonistek. Komedia eta adiskidetasuna uztartzen dituen tragedia da *Hil arte bizi* antzezlanaren. 20:30ean hasiko da ikuskizuna, eta sarrerak hamar euro balio ditu (Gazte Txartelarekin, zazpi euro).



Udalak kaleratutako egutegi handiak agortu egin dira

2013ko egutegiak kaleratu ditu Elgoibarko Udalak eta dagoeneko agortu dira tamaina handikoak. Udaleko Euskara Sailak Ongarriren laguntzaz prestatu ohi duen egutegiak beti izan du arrakasta herritarren artean, baina aurtengoa ezohikoa izan dela adierazi dute arduradunek, eta "eskuetatik kendu" egin dizkietela gaineratu dute. 2.500 egunkari handi atera dituzte aurten, eta ez da bakar bat ere geratzen. Egutegi txikiak, aldiz, 6.000 argitaratu dituzte, eta gutunontzietan, eskoletan, euskaltegietan... banatu dituzte. Urtez urte handituz doa herritarren eskaria, eta "pozigarria" dela adierazi dute Euskara Sailak eta Ongarri argazkilari elkarteak. Antolatzailerak eskerrak eman dizkiete argazki lehiaketan parte hartu dutenei, eta baita, egutegiari horren harrera ona egin dieten herritarrei.

Zigilu erakusketak hasiko du bihar San Anton jaietako egitaraua

Hagina zuhaitzari eskainiko diote aurten erakusketa

Bihar zabalduko dute zigilu erakusketa Altzolatarren Dorretxea elkartekoek, eta ekitaldi horrekin hasiko dira aurtengo San Anton jaiak. 12:00etan izango da inaugurazio ekitaldia Kultur Etxean. Aurten hagina zuhaitzari eskainiko diote erakusketa, eta inaugurazio ekitaldian zuhaitzari buruzko zigilu-markatzeko berezia jarriko dute. Erakusketa hilaren 20ra arte egongo da zabalik. Astelehenetik zapatara 18:30etik 20:30era eta jai egunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era.

Urtarrilak 17, San Anton eguna

Urtarrilaren 17an da San Anton eguna da, eta hori ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu ditu Elgoibarko Udalak. Goizean, meza egingo dute San Bartolome parrokian, eta abesbatzak kantatuko du. Umeentzako parkea jarriko dute Kalegoen plazan, eta eguerdirako kontzertu berezia prestatu du Emudafek. Erraldoi eta buruhandiak arratsaldean irtingo dira kalera, dultzainero eta zenezikletekin. (Egitarau osoa agendan).

Buffalo talde zarauztarrak kontzertua emango du gaur, Kultur Etxeko sotoan

Buffalo musika talde zarauztarrak kontzertua emango du gaur gauean, Kultur Etxeko sotoan. Jazz eta rock estiloko musika uztartzen ditu Zarauzko hirukote honek, eta musika instrumentala egiten du. Kontzertua Sinuosek antolatu du, eta 23:00etan hasiko da, Kultur Etxeko sotoan. Sarrerak 3 euro balio ditu.



Lanerako prestakuntzarako 134 ikastaro eskainiko ditu IMHk ekainera bitartean

Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuak gertu dauka lanerako prestakuntzarako 2013ko lehen seihilekoan eskainiko dituen ikastaroen programazioa. Guztira, langileentzako eta langabetuentzako 134 ikastaro emango dituzte. Programatutako ikastaroez gain, enpresen behar zehatzetara egokitu-tako ikastaroak emateko aukera ere badu IMHk. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak aldaketak egin ditu Lanbide Heziketa Iraunkorrean, eta horren ondorioz, IMHk ere egokitu egin du 2013rako enplegurako prestakuntza eskaintza. Aldaketak aldaketa, ikastaro eskaintza zabaldu prestatu du IMHk aurtengorako ere. Ikastaroetako batzuk, gainera, estreinakoz eskainiko dituzte. Hiru dira ikastaro berriak: S7 Ethernet eta Profinet, muntai arloan; 3D neurketa Romer besoarekin, metrologian, eta, azkenik, Team Building: Talde lana izeneko ikastaroa, Giza Baliabideen alorrean. Informazio gehiago www.imh.es atarian.

Olentzerok eta Mari Domingik banatu zituzten Mendaroko ipuin lehiaketako sariak



Abenduaren 24an banatu zituzten Olentzerok eta Mari Domingik Mendaroko ipuin lehiaketako sariak. 5. eta 6. mailako kategorian Ehki Zubiaurre mendaroarrak irabazi zuen, eta Gorka Bolunburu izan zen bigarrena. DBHko 1. eta 2. mailako artean Ana Zubiaurre elgoibartarra izan zen irabazlea, eta Mendaroko Enara Agirrezabalak egin zuen bigarren. Azkenik, DBHko 3. eta 4. mailakoetan Nora Kortaberriak irabazi zuen, Irati Gurrutxagak egin zuen bigarren eta June Ezpeletak jaso zuen herriko onenaren saria.

Hunkituta bizi izan zuen Joseba Etxeberriak abenduaren 22an Mintxetan egin zioten omenaldia

Josebaren aitona Eulogio Etxeberriak egin zuen ohorezko satea

Futbolari gisa emandakoa eskertu zioten abenduaren 22an Joseba Etxeberriari Mintxetan egin zioten omenaldian. C.D. Elgoibarrek antolatu zuen omenaldia, eta harmailak bete egin ziren Athleticen jokalariek beteteranoen eta Elgoibarko beteteranoen arteko norgehiagoka ikusteko. Lehenengo zatia Athleticen jokalariek egin zuten Etxeberriak, eta bigarren zatia Elgoibarrek.

Partida hasi aurretik, baina, hainbat omenaldi eta oroigarri jaso zituen: C.D. Elgoibarrena eta Athleticen jokalariek ohien elkarteenak, besteak beste. Azken hori talde txuri-gorriko beste mita batek, Jose Angel Iribarrek, eman zion. Aurrekoa ere dantzatu zioten, eta hunkituta jarraitu zuen. Hala ere, momenturik hunkigarriena ohorezko satea egiteko unekoa izan zen, beharba-



da. Izan ere, Josebaren aitona, Eulogio Etxeberriak, egin zuen ohorezko satea hori, eta ondoren besarkada luze batean batu ziren biak, aitona eta biloba. Mintxeta inau-

guratu zuteneko estreinako gola Josebak berak sartu zuela gogoratu zuten ekitaldian, eta Eulogio Etxeberriak egin zuela Ipuruako aurrenekoa.

120 umek parte hartu zuten abenduaren 22an Mendaron jokatu zen haur krolean



Estreinako aldiz haur krolean antolatu zuen Mendaroko Txirindulari Elkarteak abenduaren 22rako, *kirolean ere euskaraz* lelopean. Guztira, 120 korrikalarik parte hartu zuten, eta ekitaldiak jendetza handia batu zuen Mendarozabalaren. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako eskola-umeentzako ekitaldia izan zen, eta Mendaron korrikarako afizioa badagoela erakusteko balio izan zuen.

Goñik eta Txurrukak jokatu dute San Anton pilota txapelketako finala

Barixakuan jokatu ziren San Anton eskuz binakako txapelketako finalerdia, eta Mikel Goñi eta Iker Txurruka sailkatu ziren finalerako, Kepa eta Arrastoari 22-10eko emaitzarekin irabazita. Jaialdiko lehen partidan, 22 urtez azpikoetan, Ugalde eta Imaz aise nagusitu ziren Juaristi eta Lizarralderen kontra (22-1), eta finalerako txartela eskuratu zuten.

Alcorta Forging Groupek Bidasoa taldea hartuko du San Anton egunean

Alcorta Forging Group Elgoibarko senior eskubaloitako taldekoak Bidasoa Irun taldearen kontra lehiatuko dira hilaren 17an, San Anton egunean. Olaizaga kiroldegian izango da partida, 19:00etatik aurrera.

Elgoibarren 70 bat lagunek parte hartu zuten San Silvestre inprobisatuan

Ahoz aho eta sare sozialen bidez egin zuten deialdia



San Silvestre lasterketa antolatzeko ardura inork hartzen ez zuela ikusita, herriko korrikalari batzuk ahoz aho eta sare sozialen bidez zabaldu zuten abenduaren 31n korrika egiteko deia, eta halaxe, ia-ia espontaneoki, 70 antxixikari elkartu ziren, 17:00etan, Kalegoen plazan. Han bertan erabaki zuten ibilbidea, eta herriko kaleetan barrena ibili ziren antxixika. Hona hemen korrika hasi aurretik parrokiako atarian egin zuten argazkia.

Iñigo Lariz eta Maite Maiora nagusi Tobazoko Eski Igoeran

Gogor hasi dute eski denboraldia Iñigo Larizek eta Maite Maiorak. Hilaren 5ean Tobazoko Eski Igoera jokatu zen Candanchun, eta Larizek irabazi zuen gizonezkoetan eta Maiorak emakumezkoetan. Candanchuko estazioko Faustino kafetegi parean hasi eta Tobazo mendira igotzean datza proba hori, eta, aurren, elgoibartar ugarik parte hartu dute. Larizek 17:20ko denboran osatu zuen ibilbidea eta Maiorak 23:22ko denboran. Emakumezkoen artean Itziar Gurrutxaga elgoibartarra izan zen bigarrena. Bestalde, La Molinako kronoigoera, Espainiako txapelketako proba puntuagarria, ere jokatu zen abenduaren 29an, eta han ere fin aritu ziren gure ordezkariak. Larizek euskal selekzioarekin parte hartu zuen, eta seigarren sailkatu zen. Maite Maiorak, berriz, hamargarren egin zuen.

Butanoa bizkarrean hartuta Lizarpe gainera nor azkarrago heldu apustua egin dute Mendaron

Apustu bitxia egin dute Mendaron urtarrilaren 26ra: butano betea bizkarrean hartuta, udaletxe paretik Lizarpe gainera nor azkarrago heldu. 4,6 kilometroko bidea da, aldapa pikoa, eta 26 kilo bueltako pisua bizkarrean hartuta, aldatzagoa egingo zaie, zalantzarik gabe. Bi mendaroar eta mutrikuar bat lehiatuko dira: Unai Salegi *Sarobe*, Jurdan Ezenarro eta Andoni Zubiaurre *Gorixo*. 11:30ean irtengo dira udaletxe paretik, eta entrenamenduetan egindako denborak argitu ez badituzte ere, 50 bat minuturen bueltan ibiliko direla zabaldu da herria.



EMAITZAK

FUTBOLA

Elgoibar 3 – Añorga 0 (Haundi)
Elgoibar 4 – Zumaiako F.T. 1 (Erregionala)
Elgoibar 3 – Vasconia B 0 (Jubenilak)
Elgoibar 2 – Aretxabaleta 0 (Kadete A)
Elgoibar 2 – Sanse 2 (Kadete B)

ESKU PILOTA

San Anton Txapelketa
Mikel Goñi / Txurruka 22 – Kepa / Arrastoa 10
Ugalde / Imaz 22 – Juaristi / Lizarralde 1

SASKIBALOA

Viento Sur 65 – Alde Zaharra B 40

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 12

19:40 Concepto Egile – Zalatorbor (2. B maila)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 12

12:00 Elgoibar – Beasain (Erregionala)

16:30 Elgoibar – Beasain (Ohorezko kadetea)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 12

11:30 Aterpe – Murgil

12:45 Federopticos Ikus - Urnietako

16:00 Gabaz – Egia

17:30 Beristain banaketak – Aloña Mendi

Domekia, 13

10:00 Txariduna – Aloña Mendi

11:30 Bankoa – Deca

12:45 Pneumax-Bergara

ESKU PILOTA (Ikastolan)

Zapatua, 12

11:00 Lagunak 1 – Zestoa (1.mailako erregionalak)

11:40 Lagunak 1 – Urnieta (Palaz. 2. mailako erreg.)

LANA

ESKAERA

- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Etxean nahiz ospitalean. Goizez, arratsaldez edota orduka. ☎ **660 551 781**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Etxean zein ospitalean. ☎ **699 609 190**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Paperak legez ditut. Esperimentzialaduna. ☎ **670 551 133**
- Portalak garbitzen edo adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Orduka. ☎ **636 517 025**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka, interna nahiz asteburuetan. ☎ **636 362 251**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka, interna nahiz asteburuetan. ☎ **632 253 170**
- Emakume lan bila. ☎ **685 375 377 / 638 527 915 (Jakeline)**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **648 505 256**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **685 724 861 / 943 748 899**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **681 065 683**

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **605 720 298**
- Gizona nagusiak zaintzeko edo baserrian zein tabernan lan egiteko prest. ☎ **686 077 316**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **646 821 678**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **608 474 923**
- Logopedia, Lehen Hezkuntza eta Hezkuntza Premia Bereziko klase partikularrak ematen ditut. Irakaslea naiz. ☎ **627 704 124 (Eukene)**
- Magisteritza diplomaturia naiz eta EGA titulua daukat. Klase partikularrak ematen ditut. ☎ **666 329 728**

ETXEBIZITZAK

- Pisia hartuko nuke alokairuan. ☎ **608 474 923**
- Etxea alokatzen dut Pedro Migel Urruzuno 8an. ☎ **943 741 275**
- Neska batek etxea hartuko luke alokairuan. Premiazkoa. ☎ **686 420 642**
- Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **605 667 923**
- Bikote batek pisua hartuko luke alokairuan. ☎ **659 093 967**

- Logela alokatzen dut, etxebizitza erosoan. ☎ **648 210 852**

BESTELAKOAK


- Eskumuturrekoa aurkitu dut Urazandin. Patri eta Denis izenak jartzen ditu. ☎ **669 681 995**
- Azken hileko zapatuko ferian lepokoa galdu nuen. Txapa bat dauka eta Lucia jartzen du. ☎ **607 348 828**
- Lagun talde bat lokal bila dabil. ☎ **669 022 573**
- Kontsumo bajuko berogailuak salgai, erdi prezioan. Tamaina desberdineta-koak. ☎ **658 729 235**
- Gazteentzako lokala alokairuan. ☎ **648 210 852**
- Goiko Errota elkarateak bazkide berriak hartuko lituzke. ☎ **619 574 247 (Felix)**

KINTOAK

- 68 an jaiotako elgoibartarek kinto bazkaria egingo dute urtarrilaren 26an. Interesatuak 50 euro sartu beharko dituzte kontu korronte honetan: 3035 0007 21 0071125749

GARAJEAK


- Garajea alokatzen dut Pista Beltzean. Leku onean dago, eta autoa bertan garbitzeko aukera ematen du. ☎ **679 843 332**
- Garajea alokatzen dut Jausoron. Ate automatikoa eta gilitz automatikoa. ☎ **663 409 726**


Elgoibar Ikastola

Elgoibar ikastolak lanpostua betetzeko ondorengo titulazioak dituen persona bat behar du:

- Euskal Filologian Lizentziatura eta Lehen Hezkuntzako Diplomatura.

Interesatuak bidali C.Va elgoibar@ikastola.net helbidera. CV jasotzeko epea urtarrilaren 14an bukatuko da.




ESKERTZA

ANTONIO BARRENECHEA URQUIOLA

“Borrajén”

*Aurpegi alai, irribarre goxo,
denoi zu erregalaten,
bizitza egin diguzu zero. Zu joan arren,
saiatuko gara zero hori konpartitzen.*

Familiakoak



2013ko urtarrilaren 2an hil zen, 69 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



• Zorionak, **txabarrinol** asteazkenean urtebete! Patxo asko, familiakoen partez



• Zorionak, **Sare**, igande 4 urte! Muxu asko, familiakoen partez.



• Zorionak, **Intza**, abenduaren 29an 4 urte bete zenituelako. Marrubizko muxu bat, etxeko guztien partez.



• Zorionak **etxeko printzeari**. Adriany, Melany, eta aita eta amaren partez.



• Zorionak, **Telmo**, hilaren 11n 3 urte egin dituzulako. Primeran pasa! Bereziki, Klara eta laguneren partez. Patxo handi bat.



• **Elur**, txapeldun! Zorionak, astelehenean 4 urte bete zenituelako. Muxu handi bat, familiako guztien partez.



• Zorionak, **Ane**, urtarrilaren 5ean 8 urte bete zenituelako. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Ainhoa**, Errege Egunean 7 urte egin zenituelako. Familiakoen, eta bereziki, Nerearen partez.



• Zorionak **gure lkerri**, etxeko erregeari, gaur urte bat egin duelako. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **etxeko sorginari**, urtarrilaren 2an 4 urte egin zenituelako. Muxu handi bat.



• Zorionak, **Elena**, hurrengo igandean 18 urte beteko dituzulako. Familiakoen partez, muxu asko.



• Zorionak, **Elene**, bihar, urtarrilak 12, 5 urte beteko dituzulako. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **June**, asteazkenean 8 urte bete zenituelako. Familiakoen, eta bereziki, Mariaren partez.



• Zorionak, **Jon**, etxeko mutil handia! Astelehenean 7 urte egin zenituen! Muxu handi bat, familiakoen partez.



• Zorionak, **Felisa eta Flora**, urtarrilaren 6an 95 urte bete zituztelako. Lagunen partez.



• Zorionak gure etxeko bi pozei, **Jon eta Nahari**, hilaren 22an 2 urteko egin zituztelako. Bereziki, aiton-amonen partez. Muxu potolo asko.



• Zorionak, **Ibon eta Elene**, zuen hirugarren urtebetetzean. Milaka muxu familiako guztien partez.

I. URTEURRENA

JESUS MARI ZUBIAURRE MUGERZA

2012ko urtarrilaren 14an hil zen, 81 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, urtarrilak 19, arratsaldeko 19:00etan Altzolako San Juan Bautista elizan. Joango zaretanoi eskerrak aldez aurretik.



I. URTEURRENA

IÑAKI INSAUSTI ZUBIAURRE

2012ko urtarrilaren 7an hil zen, 84 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, urtarrilak 12, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretanoi eskerrak aldez aurretik.



11 barixakua

Antzerkia

20:30 'Hil arte bizi'

Txalo Produzizioak taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

Musika

23:00 Buffalo taldearen kontzertua

Sinuosek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

12 zapatua

Kirola

19:30 Mugertza krosetako

komikalariei harrera

Udaletxeko pleno aretoan.

13 domeka

Kirola

10:00 Mugertza krosa Mintxetan.

Zine forum

18:00 'Paris, Texas'

Gazte Asanbladak zine forum saioa antolatuta du. Txokolatea eta txurroak eskainiko dituzte. Gaztetxean.

Musika

18:00 Biolin eta teklatu kontzertua

Mariena Sata eta Esther Iñiguezek eskainiko dute. San Bartolome parrokian.

15 martitzena

Udal aurrekontuak

19:30 Aurrekontu

partehartzailen bilera

Bilduk antolatuta, Kultur Etxean.

17 eguena

Jaiotza

10:30-13:30 / 17:30-20:30

Jaiotza mekanikoa

Jaiotza ikusteko azken eguna.

18 barixakua

Bideo forum

21:30 'La fuente de las mujeres'

Loredi Salegik dinamizatuko du saioa. Kafea eta pastak banatuko dituzte. Kultur Etxean.

Karta jokoa

21:00 Mus txapelketa

Mendaroko Aitz Beltz tabernan jokatuko dute, Euskal Herriko Txapelketako kanporaketa.

San Anton jaiak

12 ZAPATUA

12:00 Zigilu erakusketa

Urtarrilaren 20ra arte egongo da zabalik, Kultur Etxean.

17 EGUENA

San Anton Eguna

11:00 Meza nagusia

San Bartolome parrokian.

11:30-14:00 / 16:30-19:30

Haur parkea

Kalegoen plazan (Eurria eginez gero, Ikastolako frontoian).

12:30 San Anton kontzertua

Emudafek antolatuta, Herriko Antzokian.

17:00 Erraldoi eta

buruhandiak

Zezenzikletekin eta dultzaineroekin, kalejira.

19:00 Eskubalo partida

Alcorta-Bidasoa Irun.

Olaizaga kiroldegian.

OKINDEGIA

13 domeka: **EIZAGIRRE**

17 eguena: **FOTERO**

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

- 11 Garitaonandia
- 12 Etxeberria
- 13 Etxeberria
- 14 Fernandez
- 15 Yudego
- 16 Barrenetxea
- 17 Zabaleta
- 18 Ibañez

Gauetz

22:00 - 9:00

- Garitaonandia
- Etxeberria
- Etxeberria
- Bidasola
- Yudego
- Barrenetxea
- Barrenetxea
- Yudego

ZWEA

'La parte de los ángeles'

12, zapatua: 19:00/22:15

13, domeka: 19:00

14, astelehena: 21:30

'Asterix y Obelix al servicio de su majestad'

13, domeka: 16:30

'El Hobbít'

17, eguena: 19:00

18, barixakua: 22:15

19, zapatua: 19:00/22:15

20, domeka: 19:00

21, astelehena: 21:30

ESKERTZA

JULIO URÍA DE LOS BUEIS

2013ko urtarrilaren 5ean hil zen, 85 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola, hileta elizkizunetara agertu izana.





Dorleta Fernandez Azpilikueta. 21 urte. Elgoibartarra. Mekanikako Ingeniaritza graduko 4. kurtsoa ikasten ari da, eta irailaz geroztik Italiako Politecnico di Torinoko unibertsitatean dago seihileko bat bertan ematen.

“Mondragon Unibertsitateko irakasleen gertutasuna asko baloratzen dut”



Zergatik aukeratu zenuen Mekanikako Ingeniaritza, eta zergatik MUn?

Batxilergora heltzean adar zientifiko teknologikoa aukeratu nuen. Garbi neukan teknologia aldera joko nuela. Etapa hau amaitze aldera unibertsitate ezberdinetatik etorri ziren ikastolara karrera ezberdinei buruzko informazioa ematera. Orduan hautatu nuen ingeniaritza ikasiko nuela. Baina informazioa bilatzen hasi nintzenean ez nuen uste horrenbeste ingeniaritza mota egongo zirenik! Azkenean, Mekanika aukeratu nuen. Mondragon Unibertsitatea aukeratzeko ez nuen zalantza askorik izan. Ezagunak ditut bertan ikasi eta lan egiten dutenak eta haiek ondo hitz egiten zidaten MUn buruz. Denek gogorra zela esaten zidaten, baina ondo ikasten zela.

Politecnico di Torino Italiako unibertsitatean ari zara azken ikasturtea egiten, zer moduzko esperientzia ari zara bizitzen?

Beti izan dut kanpora ikastera joateko asmoa. Italia ez zen nire lehentasunetako bat (nahiago nuen ingelesa hitz egiten

zen leku batera joan), baina klaseko beste neska batekin Politecnico di Torinora etortzeko aukera eman zidaten eta, noski, onartu egin nuen. Seihileko baterako izango gara hemen, martxora arte. Bizitzen ari naizen esperientzia izugarria da! Jende berria ezagutu, kultura berriak, toki berriak, hizkuntza berriak... pertsona bezala garatzeko balio duen esperientzia dela esango nuke eta pixka bat autonomia izaten ikasteko balio duena.

“Italiako hezkuntza eredu oso desberdina da. Hemen dena azterketa batean jokatzen da”

Bertakoarekin alderatuta, oso ezberdina da hango hezkuntza eredu?

Klase guztiak ingelesez ematen ditugu, eta hori dela eta, ez gaude italiar askorekin klasean. Ia denak txinatarrak eta pakistandarrik dira. Hezkuntza eredu oso ezberdina da. Nik nahiago dut MUn. Hemen asig-natura bakoitzeko bi azterketa ditugu: idatzia, eta hori gaudituz gero, ahozkoa. Bietako bat ez gaudituz gero, ikasgaia suspendituta geratzen zaizu. Dena azterketa batera jokatzen da. Arrasaten, aldiz, Bolognako plana jarraitzen da, eta azterketa txikiak egiten ditugu kurtso guztian zehar.

Horrez, gainera, irakaslearekiko gertutasuna botatzen dut faltan. Hemen irakasleak ez daki ikasleei buruz ezer. Bere lana egunean hiru ordu klasea eman eta etxera joatea da. MUn irakasleak ezagutzen dituz irakasleak eta horrek asko laguntzen du.

MUnetik zer da gehien gustatzen zaizuna? eta zerbait hobetzeko?

Esan bezala, Arrasateko hezkuntza eredu-tik gehien gustatzen zaidana azterketa txiki asko egiten direla da. Horrez gain, notarako baliagarriak diren talde lanak egiten ditugu, eta hauei esker talde lanean aritzen ikasi dut. Hala ere, askotan irakasleek ez dakite zenbat lan bidaltzen diguten. Azterketa eta lanak pilatzen zaizkigu eta ez digu dena ondo egiteko denbora ematen. Alde horretatik, irakasleen arteko komunikazioa falta dela uste dut. Lanak hobeto banatu beharko zituzten... Baina irakasleek gureganako duten gertutasuna ere asko baloratzen dut.


Behin gradua bukatuta, zeintzuk dira zure asmoak?

Aurten ingenieritza mekanikan graduatzea espero dut. Arrasatera ikastera joan nintzen momentuan nire helburua ingenieritza industrial egitea zen, eta ez dut iritziz aldatu. Horregatik datorren urtean bi urteko master bat egingo dut (seguruena material eta prozesuen inguruan) eta hori amaitzean Industria Ingeniaritza titulua lortuko dut. Guztira sei urte izango dira. Hori eta gero doktoretza egiteko aukera dago, baina ez dakit egingo dudarik.

Baliteke gidariren bati teleordainketa berria ez interesatzea

Gipuzkoako autobideetan, gehienez

25,64€ /hilean
(gipuzkoarrentzat bakarrik)



Martetik ez bazatoz eta Gipuzkoan erroldatuta bazaude, interesgarria irudituko zaizu zifra hau: 25,64€/ hilean. Teleordainketaren gehieneko tarifa berria duzu, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bidegik martxan jarria, AP-1ean eta AP-8an egunero ibiltzen diren milaka gipuzkoarren gastua arintzeko.

www.bidegi.net

